

# TRAFIKOKO TXOSTEN MONOGRAFIKOAK

4



urria 2006

## HAURRAK AUTOAN LOTZEKO SISTEMEN ERABILERA EGOKIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

# TRAFIKOKO TXOSTEN MONOGRAFIKOAK



urria 2006

## HAURRAK AUTOAN LOTZEKO SISTEMEN ERABILERA EGOKIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINDO SALA  
Segurtasun Salburuzkibata  
Tráfico Zubierdona

DEPARTAMENTO DE INTERIOR  
Viceconsejería de Seguridad  
Dirección de Tráfico

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2006



Argitaraldia: 1.a, 2006ko azaroa

Ale-kopurua: 2.000 ale

©: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Herrizaigo Saila

Internet: [www.euskadi.net/trafikoa](http://www.euskadi.net/trafikoa)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia Kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Konposaketa: Prisma Gráfico

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S.A.

ISSN: 1887-0228

L.G.: S-1451-03

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	5
<b>IKERKETAREN HELBURUAK</b> .....	9
<b>METODOLOGÍA</b> .....	13
<b>AZTERTUTAKO KASUK</b> .....	23
1. "DISTANTZIA HANDIKO" IBILBIDE LUZEETAN GAILUAREN BENETAKO ERABILERA .....	25
1.1. HLS Daramaten haurren portzentajea .....	25
1.2. Behar bezala kokatutako HLS-EN portzentajea .....	28
1.2.1. Gailua oker kokatzearen arrazoiak .....	29
1.3. Behar bezala kokatutako haurren portzentajea .....	31
1.3.1. Haurra oker kokatzearen arrazoiak .....	32
2. "DISTANTZIA ERTAINEKO" IBILBIDE LUZEETAN GAILUAREN BENETAKO ERABILERA .....	35
2.1. HLS daramaten haurren portzentajea .....	35
2.2. HLS-n kokatutako haurren portzentajea .....	36
3. IBILBIDE MOTZETAN GAILUAREN BENETAKO ERABILERA .....	39
3.1. HLS daramaten haurren portzentajea .....	39
3.2. HLS-n kokatutako haurren portzentajea .....	40

<b>INKESTATUTAKO HELDUAK. BEREN SEME-ALABAK AUTOAN DARAMATZATEN</b>	
<b>GURASO EUSKALDUNEN JOKABIDEA HLS-EKIKO</b> .....	43
1. BIZTANLEEK HAURRAK LOTZEKO SISTEMARI BURUZ DUTEN KONTZIENTZIAZIOA .....	45
1.1. Euskal biztanleek HLS-ri buruz duten kontzientziazioa .....	45
1.2. Inkestatutakoek HLS-ei buruz duten kontzientziazioa .....	46
1.3. Inkestatutako biztanleek HLS erabili behar duten haurren adin eta pisuari buruz adierazten duten ezagutza .....	51
2. HLS-ren OHIKO ERABILERA .....	51
2.1. Ibilbide luzea-ibilbide motza alderaketa .....	51
2.1.1. Ibilbide luzea (adin taldeak) .....	51
2.1.2. Ibilbide motza (adin taldeak) .....	52
3. HLS-k INSTALATZEA ETA HAURRA KOKATZEA .....	55
3.1. HLS-k instalatzeaz arduratzen den pertsona .....	55
3.2. Erabiltzaileek HLS-k instalatzean dituzten zailtasunak buruz egindako balorazioa .....	57
3.3. HLS-k aztertzea bidaia bat hasi aurretik .....	59
3.4. Haurra autoko HLS-k kokatzeaz arduratzen den pertsona .....	60
4. HLS-en ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK HORIEN ERABILTZAILEEN USTEZ ..	63
<b>ONDORIOAK</b> .....	67
<b>ERANSKINA</b> .....	73

# Aurkezpena





## AURKEZPENA

Gaur egun, autoek segurtasun-sistema ugari dakarte bidaiariak babesteko, baina neurri horien gehiengoak helduentzat diseinatuta daude. Horrenbestez, haurrekin bidaiatzen badugu, beharrezkoa da eurentzako ekipamendu egokia instalatzea, homologatutako eserlekuak esaterako.

Haur txikienek autoan bidaiatzean duten segurtasunaren ahulgunea alboko talkak dira, izan ere, mota horretako talketan hiltzen den haur kopurua aurrez aurreko talketan baino hiru bider handiagoa da, eta adingabeek jasaten dituzten zauriak bi bider kaltegarriagoak dira.

Haurrentzako auto-eserleku bat era egokian erabiltzean ustekabeko istripu baten ondorioak jasatea oso bestelakoa da. Haurrentzako eserleku batek agian ez du zure seme-alaba behar bezala babestuko irmo eta zuzen kokatuta ez badago. Gaur egun, eserleku eta auto modelo kopuru handiarekin, zaila gerta liteke haurrentzako auto-eserleku bat finkatzea.

Ondoko ikerketa Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren eta BABYGAB S.L.-ren beharretatik sortu da. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren arau berriak, haurrak autoan lotzeko sistema (aurrerantzean HLS) erabiltzea derrigortzen dutenak, horien erabilera handitu egin dute. Hala ere, beharrezkoa da ikerketa zehatz bat egitea gurasoak euren seme-alabak autoan lotzerakoak aurkitzen dituzten akats eta arazo nagusiak zeintzuk diren aztertzeko.

Testuinguru honetan, gure helburua adingabeen segurtasun-gailuak autoetan nortzuk, noiz eta nola erabiltzen dituzten jakitera bideratzen da.

Andoni Arriola Garrido  
Trafiko Zuzendaria



# Ikerketaren helburuak





## HELBURUAK

Funtsean, ikerketaren helburuak ondokoak dira:

- Haurrentzako auto-eserlekuen erabilpenaren portzentajea, errepidezko edozein joan-etorrian, ezagutzea, ibilbide luzea ala motza den zehaztuz.
- Gaizki instalatuta dauden edo era okerrean erabiltzen diren haurrentzako auto-eserlekuen portzentajea ezagutzea.
- Gurasoek autoan egunero HLSk erabiltzean aurkitzen dituzten abantailak eta desabantailak ikertzea.



# Metodologia





## Hasierako hipotesia eta mugaketa kontzeptuala

Ikerketa honen helburuetako bat HLSren gehiago ala gutxiago erabiltzea burutu beharreko ibilbide motaren araberakoa ala beste faktore batzuen araberakoa den aztertzea da. Zentzu horretan, ondoko hipotesitik abiatuko gara: “ibili beharreko distantzia are eta handiagoa izan, HLSk orduan eta gehiago erabiltzen dira, eta alderantziz”.

Hala ere, lan-hipotesi hori ikertzeko beharrezkoa da ibilbide luze eta motza zer diren mugatzea. Horrela definitu dira:

- “Distantzia handiko” ibilbide luzea, ibilbide luzeko tartea da, edo 25 km baino gehiagokoa.
- “Distantzia ertaineko” ibilbide luzea, hiriarteko ibilbidea da, edo 5 km baino gehiagokoa.
- Ibilbide motza, eguneroko ibilbidea da, ohikoa eta, orokorrean, hirian bertan edo 5 km-ko ibilbidea gainditzen ez duten distantzietan burutzen dena.

## Lan-tresna: Azterketa eta inkesta pertsonala

Proposatutako helburuak lortzeko ikerketa honetan jarraitu den lan-metodologiak hiru zati ditu:

1. Lehenengo zatian, parte hartuzko behaketaren (zuzena) bidez, HLSen erabilera-portzentajea aztertu da eta horren instalazio modua, baita haurren kokapena ere, “distantzia handiko” ibilbide luzea egiten zuten autoetan.
2. Bigarren zatian, ez parte hartuzko behaketaren (zeharkakoa) bitartez, ibilgailuan zihoazen eta HLS zeramaten eta hori benetan erabiltzen zuten haurren portzentajea aztertu da, bai “distantzia ertaineko” ibilbide luzeetan baita ibilbide motzetan ere.



3. Hirugarren zatian, iritzi-galdeketa bat egin da 18 urtetik gorako pertsonen artean, inkesta pertsonal baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan 12 urtetik beherako haurrak autoan daramatzaten gurasoek HLSen aurrean duten jokabidea ezagutzeko.

## Laginak<sup>1</sup>

Lehenengo behaketan, guztira ibilbide luzeko edo 25 km baino gehiagoko tarte bat burutu zuten autoetan bidaiatzen zuten 12 urtetik beherako 397 haurrek osatutako lagina behatzea lortu da. Zifra horrek %4,9ko akats batekin lan egitea dakar %95eko konfiantza maila batean.

1. Taula. "Distantzia handiko" ibilbide luzeetan aztertutako haurrak, adin-taldearen arabera

	MAIZTASUNA
0 eta 3 urte bitartean	209
4 eta 6 urte bitartean	109
7 eta 12 urte bitartean	79
<b>Guztira</b>	<b>397</b>

Bigarren behaketan, guztira "distantzia ertaineko" ibilbide luze bat edo 5 km baino gehiagokoa burutu zuten autoetan bidaiatzen zuten 12 urtetik beherako 545 haurrek osatutako lagina behatzea lortu da. Zifra horrek %95eko konfiantza maila batean lan egitea dakar %4,2ko akats-tartearekin.

<sup>1</sup> Behaketan kasuan, lagina osatzeko behaketa-unitate nagusia autoan doan haurra izan da, ez ibilgailua bere horretan.



Bestalde, ibilbide motzekoak diren joan-etorrien kasuan, guztira 12 urtetik beherako 735 haur behatzea lortu da; zifra horrek %95eko konfiantza mailan lan egitea dakar, %3,6ko akats-tartearekin.

2. Taula. "Distantzia ertaineko" ibilbide luzeetan aztertutako haurrak, adin-taldearen arabera

	MAIZTASUNA
0 eta 3 urte bitartean	302
4 eta 12 urte bitartean	243
<b>Guztira</b>	<b>545</b>

Inkestatutako helduei dagokienez, guztira autoan 12 urtetik beherako hurrekin eta hiru lurralde historikoetan banaturik bidaiatzen zuten 602 gurasoen (18 urtetik gorakoak) lagineko erantzuna lortu da. Zifra horrek %3,9ko akats batekin lan egitea dakar %95eko konfiantza maila batean. Kasu honetan kontuan hartu behar da lagin akzidental batekin ari garela lanean, azterketarako

3. Taula. Ibilbide motzetan aztertutako haurrak, adin-taldearen arabera

	MAIZTASUNA
0 urtetik 3 arte	362
4 urtetik 12 arte	373
<b>Guztira</b>	<b>735</b>

beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak hautatzetik eratorzen dena, laginaren tamaina osatzeko aurrez zehaztutako kopurua lortu arte.



## Landa-lana: Informazioa biltzea

Landa-lana 2005eko abuztuan eta urrian zehatz burutu da. Abuztuko bigarren hamabostaldian, oporretako "itzulera operazioa" aprobetxatuz, helduen artean iritzi-galdeketa bat eta "distantzia handiko" ibilbide luzeko bidaiei dagokien behaketa burutu ziren. Inkestaren puntu estrategikoak autobideko ordainlekuak eta atseden guneak izan ziren.

"Distantzia ertaineko" ibilbide luzeko (5km baino gehiago) bigarren behaketa, urrian zehar garatu da, ibilbide motzeko bidaiei dagokien zatia bezala eta adingabeak eskolara itzultzen direla aprobetxatuz. Distantzia ertaineko ibilbide luzeen kasuan, behaketa hiru probintzietako hainbat saltoki-guneetan burutu da, baita herri edo hiri kanpoaldeetan kokatutako eskoletan ere. Ibilbide motzen (hirikoen) kasuan, haurtzaindegiak, eskolak eta aisialdirako guneak bisitatu dira; herriaren barnean kokatuta dauden arren baina 12 urtetik beherako haurren gehiengoa autoz joaten da.

Hasierako informazioa jasotzeko (abuztuan zehar), prestakuntza eta esperientzia handiko lau pertsonaz osatutako lantalde bat hautatu zen. Era berean, burututako behaketa eta inkesta kopuruen eguneroko kontrol bat eta ondoren burututako inkesten %25aren telefonozko kontrol bat burutu ziren.

Bigarren behaketa hainbat ertzaina eta udaltzainek gauzatu dute, aurrez horri buruz irakaspenak jaso dituztenak; hemendik, burututako lana eskertzen diegu.


Orokorrean, ez da nabarmentzeko inolako arazo edo gertakaririk jazo informazioa jasotzerakoan, izan ere inkestatutakoen gehiengoa laguntzeko prest eta interesaturik agertu da aztergai dugun gai honi dagokionez.



Hala ere, aipatu behar da Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzatik igorritako aurkezpen-gutuna oso lagungarria izan dela lan horretan.

### Inkestatutako helduen laginaren ezaugarriak

A grafikoan ikus dezakegun bezala, ia inkestatutakoen erdia gizonetzkoak dira (%49,3) eta beste erdia emakumezkoak (%50,7).



Inkestatutako gurasoen adinari dagokionez, hamarretik bederatzik 25 eta 45 urte bitartean dituzte (%42,9k 25 eta 35 urte bitartean dituzte eta %48,5ek 36 eta 45 urte bitartean dituzte). Soilik %5,5ek dituzte 46 eta 55 urte bitartean, %2,2k 56 urte baino gehiago (aiton-amonei dagokiena) eta %1ek, 18-24 urte bitartean.



Ikasketa-mailari dagokionez, inkestatutakoen hamarretik lauk baino gehiagok (%43,9k) unibertsitate-ikasketak dituzte, hamarretik hiruk (%34,4) batxilergo titulu du eta hamarretik bik (%20,8), eskola-graduatuak.

Inkestatutako gurasoen artean, %90,2k baino gehiagok, bi seme/alaba baino gutxiago ditu (ia hamarretik seik seme/alaba bakarra du eta hamarretik hiruk baino gehiagok bi seme/alaba ditu). Soilik %4ak ditu bi seme/alaba baino gehiago.

4. Taula. 12 urtsko edo hortik beherako haurren kopurua (%)

	MAIZTASUNA	PORTZENTAJEAK
Bat	338	59,2
Bi	205	35,9
Hiru	24	4,2
Lau	3	0,5
Bost	1	0,2
<b>Gutira</b>	<b>571</b>	<b>100</b>

Inkestatutakoak behatutako haurrekin duen ahaidetasunari dagokionez, inkestatutako hamarretik bederatzi (%94,1) horien gurasoak dira.





# Aztertutako kasuak

## HLS-ei Buruzko Fitxa Teknikoa

- "Distantzia handiko" ibilbide luzea
- "Distantzia ertaineko" ibilbide luzea
- Ibilbide motza





Azterketaren lehendabiziko zati honetan haurrak lotzeko sistemaren erabilera-ri buruzko analisi bat burutuko da burututako behaketetan oinarrituz.

Lehendabizi, distantzia handiko ibilbide luzearen lehendabiziko behaketatik eratorritako emaitzak aurkezten dira, non, besteak beste, segurtasun-gailu horien erabilera, horien erabilpen egokia edo haurrak eserlekuetan kokatzea/ instalatzea bezalako alderdiak lantzen diren.

Ondoren, distantzia ertaineko ibilbide luzeari eta ibilbide motzari dagozkion bigarren behaketatik eratorritako emaitzak jasotzen dira, soilik HLS daramaten ibilgailuetan bidaiatzen duten 0 eta 12 urte bitarteko haurrei eta horien erabilpenaren portzentajeari buruzko informazioa jasotzen dutenak.

## **1. “DISTANTZIA HANDIKO” IBILBIDE LUZEETAN GAILUAREN BENETAKO ERABILERA**

### **1.1. HLS Daramaten haurren portzentajea**

Burututako lehendabiziko behaketan lortutako emaitzen arabera, eta hurrengo grafikoan antzeman daitekeen bezala, behatutako haurren —0 eta 12 urte bitartekoak— ia %95ak autoan haurrak lotzeko sistema instalatuta zeraman. Aztertutako kasuen %5ak, aldiz, ez zeraman inolako segurtasun-sistemarik.

Dirudienez, horrek adierazten du herritarren zati txiki batek —12 urtetik beherako seme/alabaren bat duena—, oraindik ez dela arauetara moldatu eta ez daramala haurrentzako inolako segurtasun-gailurik, ezta ibilbide luzeko bidaiak egiten dituenean ere.





Erabilpen-portzentaje handi hori gorabehera, haurren adina aldagaia hartzen badugu, ezberdintasun batzuk antzeman daitezke, batez ere adin handiagoko haurren artean. Egitez, 7 eta 12 urtetik beherako adingabeen %22 inguruk, autoan bidaiatzen zuen distantzia handiko ibilbide luzeetan inolako segurtasun-sistematik erabili gabe.

1. Taula. Distantzia handiko ibilbide luzeetan ibilgailuetan HLSren erabilpena, haurren adinaren arabera (%)

	GUZTIRA	0 urtetik 3ra	4 urtetik 6ra	7 urtetik 12ra
HLS daramate	94,5	97,8	96,9	78,5
Ez daramate HLS	5,5	2,2	3,1	21,5
<b>Guztira</b>	<b>397</b>	<b>209</b>	<b>109</b>	<b>79</b>

Emaitza horietatik ondorioztatzen da, are eta zaharragoak haurrak orduan eta gutxiago kezkatzen dira gurasoak autoan dagokien segurtasun-gailuarekin eramateaz.



### 1.1.1. Gailua haurren pisu eta tamainari dagokiona da

Segurtasun-gailu oro, haurren adinari baino, bere egiturari egokitu behar zaio, hau da, bere neurriari eta pisuari.

Hurrengo grafikoan (2. Grafikoa) ikus daitekeen bezala, distantzia handiko ibilbidea burutu zuten behatutako haurren ia %98k araudi honi egokitutako HLSk zeraman; hau da, gailuak bat zetozen adingabeen pisu eta tamainarekin.



### 1.1.2. Gailuak homologazio-araudia betetzen du

Araudia betetzeari dagokionez, haurren pisu, adin eta tamainarako egoki den sistema aukeratzeaz gain, garrantzitsua da homologatua egotea, izan ere, horrela segurtasun-frogak gainditu dituen produktu bat erabiltzen ari denaren bermea dauka. Horregatik, lan honetan erabilitako gailuak aztertu dira.

Zentzu horretan, egiaztatu da soilik behatutako %5ak soilik ez duela betetzen indarrean dagoen homologazio-araudia; gehiengoak (%95) betetzen du.






## 1.2. Behar bezala kokatutako HLS-EN portzentajea

Aztertutako beste puntu bat haurrak lotzeko sistema kokatzeari buruzkoa da. Ibilgailuan segurtasun-gailuak eramateko betebeharrak gain, oso garrantzitsua da horiek behar bezala kokatuta egotea, haurrei segurtasun osoa eskaintzeko.

Behaketa burutzerakoan, egiaztatu ahal izan da aztertutako HLSen ia %24 ez zegoela behar bezala kokatuta; horrek esan nahi du instalazioa ez dela zuzena eta, beraz, haurrak ez doazela erabat seguru.



HLSren kokapena aztertzerakoan haurraren adina kontuan hartzen bada, antzematen da 0tik 3 urtera bitarteko taldeari dagozkion gailuak direla okerren instalatutakoak (%35,1); adin-taldea igotzen doan arabera, era egokian kokatutako HLSen portzentajea ere igotzen da.

2. Taula. Distantzia handiko ibilbide luzeetan ibilgailuetan behar bezala kokatutako HLS, adin-taldearen arabera (%)

	GUZTIRA	0 urtetik 3ra	4 urtetik 6ra	7 urtetik 12ra
Bai	76,3	64,9	81,7	92,2
Ez	23,7	35,1	18,3	7,8
<b>Guztira</b>	<b>371</b>	<b>204</b>	<b>107</b>	<b>60</b>

### 1.2.1. Gailua oker kokatzearen arrazoiak

Gailuak oker kokatu direla uste izateko arrazoien artean, arrazoi nagusizat jo ditzakegun hiru daude. Horietako bat da, gailua "ez dagokiola haurraren pisu eta tamainari", beste bat da "horren instalazioa ez dela finkoa eta eskuarekin zentzu bakoitzean 2 edo 3 zm mugitu daitekeela" eta, azkenik, "istripu bat izanez gero HLSk era egokian funtzionatzea eragozten duten jostailuak edo mantak bezalako objektuak aurkitzea".

Era okerrean kokatutako gailuak hartzen baditugu (guztizkoaren %24, ikus 4. Grafikoa), ikus dezakegu ia %81ek ez duela instalazio finko edo zuzena; hau da, indar handirik egin gabe, eserlekua eskuarekin mugitu zitekeen. Bestalde, kasuen %15 oker zegoen inguruan sistemak heltzeko eginkizunak behar bezala egitea eragozten zuten objektuak zeudelako; bestalde, oker zeuden HLSetako %5ak ez zuten betetzen adingabearen pisu eta tamainaren arabera instalazio-era.





Bestalde, oker kokatutako HLSk kontuan hartzen badira eta adingabearen adinarekin erlazionatzen badira, ikus daiteke "instalazioa finkoa ez denean", gehiengoa 0tik 3 urte bitarteko haurren HLSri dagokiola (ia %71), eta gauza bera gertatzen da gailua "era egokian erabiltzea eragozten duten objektuan daudenean" (%79, 0tik 3 urtera).

3. Taula. Distantzia handiko ibilbide luzeetan ibilgailuetan gailua oker kokatzearen arrazoi nagusiak, adin-taldearen arabera (%)

	Instalazioa ez da irmoa	Objektuak daude
0 - 3 urte	70,5	78,9
4 - 6 urte	24,1	21,1
7 - 12 urte	5,4	0,0
<b>Guztira</b>	<b>83<sup>2</sup></b>	<b>70</b>

<sup>2</sup> Ez dira kontuan hartu kokapen okerreko lau kasuak ez datozelako bat tamaina eta pisuarekin oso txikia delako beste aldagai batekin gurutzatzeko.



### 1.3. Behar bezala kokatutako haurren portzentajea

HLSren instalazioa behatzeaz gain, komenigarritzat jo da haurren kokapena ere aztertzea, izan ere, gauza bat da sistema behar bezala kokatzea eta bestea, oso bestelakoa, haurra behar bezala kokatzea. Zentzu horretan, haurren segurtasuna bermatu ahal izateko, funtsezkoa da segurtasun-gailuetan behar bezala kokatzea.

Hurrengo grafikoan antzematen den bezala, distantzia handiko ibilbide luzeetan behar bezala kokatuta zegoen gailuetan; haurren %88,4 aldiz, ez zuen erabat seguru bidaiatzen autoan zihanean.



Haurraren adina kontuan hartuz gero, antzematen da 6 urtetik beherako adingabeak zirela okerren kokatuta zeudenak; 7 eta 12 urte bitartekoak, aldiz, zuzen kokatuta zeuden portzentaje handiago batean.



4. Taula. Distantzia handiko ibilbide luzeetan ibilgailuetan behar bezala kokatutako haurrak, adin-taldeen arabera (%)

	GUZTIRA	0 urtetik 3ra	4 urtetik 6ra	7 urtetik 12ra
Bai	88,4	86,4	84	94
Ez	11,6	13,6	16	6
<b>Guztira</b>	<b>371</b>	<b>204</b>	<b>107</b>	<b>60</b>

### 1.3.1. Haurra oker kokatzearen arrazoiak

Hiru arrazoi adierazi ohi dira haurra bere HLSn oker kokatuta egoteko arrazoi nagusi gisa:

- eserlekua bere pisu eta tamainarako egokia ez izatea;
- arnesaren altuera okerra izatea eta sorbalda-mailan ez heltzea;
- haurrak autoko uhala erabiltzen duen HLSetan, hori bere bularrari eta gerriari lotuta egon behar izatea, 1,5 metroko heldu baten kasuan bezala.

Gure behaketaren arabera, antzematen da haur kopuru handiago bat euren HLSn oker kokatuta joatearen arrazoia arnesaren altuera okerra zelako da, ez baitzituen sorbalda-mailan eusten (kasuen %42). Halaber, kasuen %37an uhala ez zen euren bular / gerrian eusten, heldu baten kasuan bezala, eta haurrak oker kokatzearen arrazoi ez ohikoena (%21) eserlekua pisu eta tamainaren arabera ez izatea zen.





Bestalde, haurraren adina aurreko arrazoiekin lotzen bada, antzematen da, arnesaren altuera okerra zelako oker kokatuta zeudenen artean, haurren gehiengoa 0 eta 3 urte bitartekoa zela (%77,8). Uhala ondo lotuta ez zeramaten artean, aldiz, erdia baino gehiago 4 eta 6 urte bitarteko haurrak ziren.

Azkenik, bere pisu eta tamainaren arabera eserleku egokia ez zuten haurren artean, ia guztiak 0 eta 3 urte eta 4 eta 6 urte bitartekoak ziren.

5. Taula. Distantzia handiko ibilbide luzeetan ibilgaiuetan haurra oker kokatzaren arrazoiak, adin-taldearen arabera (%)

	Eserlekua ez egokia pisu/tamaina	Arnesaren altuera okerra	Uhala ez da estua
0 - 3 urte	58,3	77,8	30,3
4 - 6 urte	41,7	11,1	60,6
7 - 12 urte	0	11,1	9,1
<b>n guztira = 41</b>	9	18	16



Horrenbestez, ondoriozta daiteke 7 eta 12 urteko haurrak direla euren HLSetan hoberen kokatuta doazenak, eta gazteenak direla bidaiatzerakoan segurtasun eza handiagoarekin doazenak.



## 2. “DISTANTZIA ERTAINEKO” IBILBIDE LUZEETAN GAILUAREN BENETAKO ERABILERA

### 2.1. HLS daramaten haurren portzentajea

Burututako bigarren behaketan lortutako emaitzen arabera, eta hurrengo grafikoan antzeman daitekeen bezala, behatutako haurren ia %80k —autoan distantzia ertaineko ibilbide luze bat burutzen dutenak— autoan haurrak lotzeko sistema instalatuta zeraman.



Ikus dezakegun bezala, HLSren erabilpenaren portzentajea distantzia handiko ibilbide luzeetan aztertutakoa baino txikiagoa da eta dirudenez, horrek “are eta handiagoa distantzia, orduan eta gehiago segurtatzen dugu gure burua” hipotesia baieztatzen du. Hau da, ibilbide motak HLSren erabilera baldintzatzen du.

Hala ere, ibilbide motaz gain, bada beste faktore bat aurrekoa bezain erabakigarria edo are erabakigarriagoa dena —haurraren adina— HLS eramaterakoan.

Egitez, behatutako hiru urtetik beherako haurren %95ek HLS zeraman autoan; 4 eta 12 urte bitarteko adingabeen artean, aldiz, soilik %61 inguruk zeraman. Antzeman daiteken bezala, ezberdintasuna oso esanguratsua da haurraren adinaren arabera.



6. Taula. Distantzia ertaineko ibilbide luzeetan ibilgailuetan HLSren erabilpena, haurren adinaren arabera (%)

	GUZTIRA	0 urtetik 3ra	4 urtetik 12ra
HLS daramate	79,8	95,0	60,9
Ez daramate HLS	20,2	5,0	39,1
<b>Buztira</b>	<b>545</b>	<b>302</b>	<b>243</b>

Horrenbestez, eta distantzia handiko ibilbide luzearen behaketan lortutako emaitzak aztertzerakoan bezala, bigarren kasu honetan ere ondoriozta daiteke haurrak ere eta nagusiagoak izan, orduan eta gutxiago arduratzen dira gurasoak autoan dagokion segurtasun-gailua eramateaz.

## 2.2. HLS-n kokatutako haurren portzentajea

Bestalde, bigarren behaketa honetan, kontuan hartu da gauza bat dela autoan gailua eramatea eta oso bestelakoa, benetan erabiltzea. Hau da, baliteke guraso batzuek HLS instalatuta izatea baina, benetan edo behintzat une jakin batzuetan (presarekin...), ez erabiltzea edo euren seme/alabak horietan ez kokatzea.

Jasotako emaitzen arabera ondoriozta daiteke gutxi gorabehera HLS zeramaten behatutako haurren %92 bertan kokatuta zihoala, hau da, erabiltzen zuela. Hala ere, geratzen den %8a, ez zihoan gailuan kokatuta, ibilgailuak gailua zuten arren.





Horrenbestez, distantzia ertaineko ibilbide luzeetan HLSren erabilpenaren benetako portzentajea %73 izango litzateke, izan ere, nahiz eta %80k zegokion HLS zeraman, haurren %8 inguru ez zihoan bertan kokatuta.

7. Taula. Distantzia ertaineko ibilbide luzeetan ibilgailuetan HLSn kokatutako haurrak, haurraren adinaren arabera (%)

	GUZTIRA	0 urtetik 3 ra	4 urtetik 12ra
Bai	91,7	96,5	82,4
Ez	8,3	3,5	17,6
<b>Guztira</b>	<b>435</b>	<b>287</b>	<b>148</b>

Adina kontuan hartuta, beste behin egiaztatzen da 4 eta 12 urte bitarteko adingabeak direla HLSk gutxien erabiltzen dituztenak.





### 3. IBILBIDE MOTZETAN GAILUAREN BENETAKO ERABILERA

#### 3.1. HLS daramaten haurren portzentajea

Burututako bigarren behaketan lortutako emaitzen arabera, eta hurrengo grafikoa antzeman daitekeen bezala, behatutako haurren ia %75ek —autoan distantzia ertaineko ibilbide motz bat burutzen dutenak— autoan haurrak lotzeko sistema instalatuta zeraman.



Ikusten dugun bezala, HLSren erabilpenaren portzentajea “distantzia handiko” ibilbide luzeetan eta “distantzia ertaineko” ibilbide luzeetan ikusitakoa baino zerbait txikiagoa da eta, dirudienez, horrek lehen planteatutako hipotesia berresten du: “are eta distantzia handiagoa, orduan eta gehiago segurtatzen dugu gure burua; are eta distantzia txikiagoa, orduan eta gutxiago erabiltzen da gailua”. Hau da, ibilbide motak HLSren erabilera baldintzatzen du.

Adina kontuan hartuz, dirudienez ezberdintasun horiek areagotu egiten dira; horrela, beste behin frogatzen da adingabearen adina ere eragin handiko faktorea dela.

Egitez, behatutako hiru urtetik beherako haurren %92k HLS zeraman autoan; 4 eta 12 urte bitarteko adingabeen artean, aldiz, soilik %58k zeraman. Antzeman



daiteken bezala, ezberdintasuna oso esanguratsua da haurren adinaren arabera. Horrenbestez, beste behin baieztatzen da, are eta zaharragoak haurrak, orduan eta gutxiago kezkatzen dira gurasoak autoan dagokien segurtasun-gailuarekin eramateaz.

8. Taula. Ibilbide motzetan ibilgailuetan HLSren erabilpena, haurren adinaren arabera (%)

	GUZTIRA	0 urtetik 3ra	4 urtetik 12ra
HLS daramate	75,4	92,5	58,7
Ex daramate HLS	24,6	7,5	41,3
<b>Buztira</b>	<b>735</b>	<b>362</b>	<b>373</b>

### 3.2. HLS-n kokatutako haurren portzentajea

Bidaiatzen duten ibilgailuan HLS daramaten haurren eta hori benetan erabiltzen dutenen artean, ondoriozta daiteke gutxi gorabehera HLS zeramaten behatutako haurren %93, bertan kokatuta zegoela, hau da, erabiltzen zuela. Gainerako %7a, aldiz, ez zihoan gailuan kokatuta, ibilgailuak hori eduki arren.



Horrenbestez, ibilbide motzetan HLSren erabilpenaren benetako portzentajea %70 izango litzateke, izan ere, nahiz eta %75ak zegokion HLS zeraman, haurren %7 inguru ez zihoan bertan kokatuta.

9. Taula. Ibilbide motzetan HLSn kokatutako haurrak, haurren adinaren arabera (%)

	QUZTIRA	0 urtetik 3ra	4 urtetik 12ra
Bai	92,6	95,8	87,7
Ez	7,4	4,2	12,3
<b>Quzaira</b>	<b>554</b>	<b>335</b>	<b>219</b>

Adina kontuan hartuta, beste behin ikus daiteke 4 eta 12 urte bitarteko adingabeak direla HLSk gutxien erabiltzen dituztenak.



# Inkestatutako helduak

Beren seme-alabak autoan  
daramatzaten guraso  
euskaldunen jokabidea HLS-  
ekiko






## 1. BIZTANLEEK HAURRAK LOTZEKO SISTEMARI BURUZ DUTEN KONTZIENTZIAZIOA

Atal honetan gurasoek HLSri buruz duten iritzia aztertuko da, bere abantailak, desabantailak, hori erabiltzea erraza den ala ez..., etab.

### 1.1. Euskal biztanleek HLS-ri buruz duten kontzientziazioa

Inkestatutakoen arabera, euskal biztanleak nahiko edo oso kontzientziazatuta daude ibilgailuetan HLSk edukitzearen garrantziarekin (%71,8). Hala ere, %16,9k uste du orokorrean ez dagoela kontzientziazio handirik.



Euskal biztanleen kontzientziazio-mailari buruzko datu honek ez du ezberdintasun esanguratsurik erakusten inkestatutakoen sexua kontuan hartzen badugu, izan ere, gizonezkoek nahiz emakumezkoek horri buruz oso iritzi antzekoa dute.



1. Taula. Biztanle euskaldunen kontzientziakzioa HLSen garrantziari buruz (%)

	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
Oso gutxi	4,3	3,4	4,3
Gutxi	12,6	14,1	12,6
Pixka bat	9,0	8,8	9,0
Nahikoa	40,2	37,7	40,2
Asko	31,6	32,0	31,6
Ed/Ed	2,3	4,0	0,7
<b>Guztira</b>	<b>602</b>	<b>305</b>	<b>297</b>

## 1.2 Inkestatutakoek HLS-ri buruz duten kontzientziakzioa

Bestalde, aurreko informazioa inkestatutakoek HLSen garrantziarekiko duten kontzientziakzioarekin egiaztatzea interesatzen zaigu. Zentzu horretan, nabarmendu behar da inkestatutakoen %86k adierazten duela oso kontzientziatua dagoela HLSekiko. Inkestatutakoen portzentaje hori nahiko kontzientziatuta daudela adierazten dutenekin batzen bada, erantzunen %97ra iristen da.



Jarraian, inkestatutako biztanleek sexuaren arabera HLSren erabilpenarekiko duten kontzientziazioa islatzen duen taula aurkezten da. Segmentazioaren arabera, ikus daiteke ez dagoela ezberdintasun esanguratsurik inkestatuen artean.

2. Taula. Inkestatutakoen kontzientziazioa HLSren garrantziari buruz (%)

	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
Gutxi	0,7	0,7	0,7
Pixka bat	1,7	1,7	1,6
Nahikoa	11,5	9,8	13,1
Asko	86	87,5	84,6
Ed/Ed	0,2	0,3	0
<b>Guztira</b>	<b>602</b>	<b>305</b>	<b>297</b>



### 1.3. Inkestatutako biztanleek HLS erabili behar duten haurren adin eta pisuari buruz adierazten duten ezagutza

Puntu honetara iritsita, interesgarritzat jotzen da euskal biztanleek HLSen erabilpenarekin lotutako lege-eskakizun hauek ezagutzen dituzten ala ez jakitea. Horregatik, inkestatutakoei legearen arabera autoan segurtatuta joan behar duten haurrek euren ustez eduki beharreko adin eta pisuari buruz galdetu zitzairen.

Hamarretik zazpi baieztatzen du badakiela zein adinera arte eta zein pisura arte joan behar duten segurtatuta haurrek autoan (%72,4).



Orokorrean antzematen da ezagutza ertain bat dagoela autoan hamabi urte-tik beherako adingabeak kokatzeari buruzko bide-segurtasuneko arauei dagokienez.

Beraz, 3. taulan ikus daitekeen bezala, haurrak segurtatuta haurrak zein adin eta pisura arte segurtatuta joan behar duten dakitela baieztatzen duten 436etatik (%72,4), %71k adierazten du haurrak 12 urtera arte joan behar direla segurtatuta autoan. Hala ere, %15,2k uste du gailu hori 5 eta 11 urte bitartera arte erabiltzen dela eta %6,5ek, 13-16 urte bitartera arte.



3. Taula. Haurrak zein adinera arte joan behar diren lotuta. (%)

Urteak	Ed	3	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	
%		7,1	0,2	0,7	0,7	1,6	1,6	0,9	5,5	4,1	71,1	1,1	4,4	0,5	0,5
		% 0,2		% 86,3							% 6,5				

HLS erabiltzeko ezarritako pisuari dagokionez, ez dago definituta Errege Dekretuan, baina uste da haurrek 36 Kg eduki arte erabili behar dutela HLS, hori guztia, adina eta altuera kontuan izanik. Kasu honetan, ezagutza portzentajea adinari buruz erakutsitakoa baino txikiagoa da. Egitez, kontsultatutakoen %28k adierazten du 36 Kg zifra.



Bestalde, eta pertsonen portzentaje handiak haurrak ibilgailuan segurtatuta joan behar duten adina ezagutzen duen arren, adierazi behar da soilik inkestatutakoen %18k (602tik 107k) ezagutzen dituela aldi berean araudiak ezartzen dituen adina eta pisua.





## 2. HLS-ren OHIKO ERABILERA

Atal honetan inkestatutakoek HLS zein ibilbide motatan erabili ohi duten eza-gutu eta aztertu nahi da. Datuak ondokoak dira:

### 2.1. Ibilbide luzea - ibilbide motza alderaketa

Ulertu behar dugu HLSen ohiko erabilerak, segurtasun-sistema horiek autoan irteten den bakoitzean erabiltzea dakarrela, bai ibilbide luzeetan (hiriartekoak, 25 Km baino gehiago) baita ibilbide motzetan ere (hirikoak, 25 Km baino gutxiago). Hurrengo grafikoaren arabera (5. Grafikoa), inkestatutako biztanleen gehiengoak adierazten du beti edo ia beti erabiltzen duela sistema hori bai ibilbide luzeetan baita motzetan ere, nahiz eta erabilpen handiagoko 7 puntuko aldea dagoen ibilbide luzeetan (%96,3) ibilbide motzekin alderatuta (%88,7). Pertsona portzentaje txiki bat dago noizean behin erabiltzen duela dioena eta nabarmendu behar da %0,3k adierazten duela ez duela inoiz erabiltzen ibilbide luzeetan eta %1ek onartzen du ez duela inoiz erabiltzen ibilbide motzetan.



### 2.1.1. Ibilbide Luzea (adin-taldeen arabera)

Ibilbide luzeak egiten dituztenean haurraren adinak HLSk erabiltzerakoan eragina duen ala ez ikusteko, nahiz eta erabilpen-portzentajea oso handia den adin-talde guztietan, antzematen daiteke haurra nagusitzen doan heinean HLSren erabilpena murrizten doala, 0 urtetatik %8 inguru jaitsiz 12 urtetara iritsi arte.

4. Taula. Ibilbide luzeetan HLSren erabilpenaren mailtasuna, adin-taldearen arabera (%)

	GUZTIRA	0 - 3 urte	4 - 6 urte	7 - 12 urte
Bai, beti	96,3	98,7	96,1	90,1
Normalean beti	3,0	1,3	3,3	7,2
Noizean behin	0,3	0	0,6	0,9
Ez, inoiz	0,3	0	0	1,8
<b>Guztira</b>	<b>602</b>	<b>310</b>	<b>181</b>	<b>111</b>

### 2.1.2. Ibilbide Motza (adin-taldeen arabera)

Ibilbide motzari dagokionez, egoera ibilbide luzearen oso antzekoa da. Horrela, haurrak adinean aurrera egin ahala, HLSen erabilpena murriztuz doa.

Egia esan, ikus dezakegu %94,5ek onartzen duela hurrek 0 eta 3 urte bitartean dituztenean erabiltzen duela eta %80,2k 7 eta 12 urte bitarteko hurrekin erabiltzen duela. Nabarmendu behar dugu, "Noizean behin" eta "Ez, inoiz" erantzunetan arreta jartzen badugu portzentajea ibilbide luzeetarako erabilpenean baino zerbait handiagoa dela. Ibilbide motzetan, %7,2k onartzen du noizean behin edo inoiz ez erabiltzea 7 eta 12 urte bitarteko haurrengan eta %2,7k ez du erabiltzen adin berekoengan ibilbide luzeetan.



5. Taula. Ibilbide motzetan HLSren erabilpenaren maiztasuna, adin-taldearen arabera (%)

	QUZTIRA	0 - 3 urte	4 - 6 urte	7 - 12 urte
Bai, beti	88,7 *	94,5	84	60,2
Normalean beti	8,5	4,8	12,2	12,6
Noizean behin	1,8	0,3	3,9	2,7
Ez, inoiz	1	0,3	0	4,5
<b>Quztira</b>	<b>602</b>	<b>310</b>	<b>181</b>	<b>111</b>

\* Nahiz eta %88 inguruk adierazten duen ibilbide motzetan beti erabiltzen duela HLS, egia esan, baieztatu da portzentaje hori %75era murrizten dela, ikerketa honen 3.1. atalean ikus daitekeen bezala





### 3. HLS-k INSTALATZEA ETA HAURRA KOKATZEA

Gurasoei eragozpen gehien sortzen dizkien lanetako bat HLSk instalatzea da, nahiz eta praktikarekin ohitzen doazen. Arrazoi hori medio, guraso-erabiltzaileek gai honi buruz duten iritzia aztertu nahi izan dugu.

#### 3.1. HLS-k instalatzeaz arduratzen den pertsona

Emaitzei dagokienez, ikus daiteke gutxi gorabehera aztertutako hamar kasutatik zazpitan (%66,4) AITA izan dela haurren segurtasunerako gailua instalatzeaz arduratu dena. Horrek pentsa arazten digu HLSen hasierako instalazioa dirudienez “gizonen gauza” dela; hau da, gizonezkoen rolari lotzen zaio, agian gailua finko eta zuzen kokatzeak indar eta trebetasun handiagoa eskatzen duelako.

Aitaren irudiaren ondoren, aita eta amarena batera datoz, gero amarena eta, maiztasun murrizagoarekin, saltzailearena edo beste pertsona batzuen, aiton-amonak, osaba-izebak, bizilagunak, etab.

6. Taula. Hasieran HLS instalatu zuen pertsona (%)

	MAIZTASUNA	PORTZENTAJEAK
Aita	400	66,4
Aita eta ama batera	85	14,1
Ama	73	12,1
Saltzailea	34	5,6
Besterik	10	1,7
<b>Guztira</b>	<b>602</b>	<b>100</b>





Hala eta guztiz ere, nahiz eta oraindik aita den HLS kendu eta jarri ohi duen pertsona (%38,4), egia da beste behin HLS instalatzerakoan, autoz aldatzen delako, edo auto berean gailua kendu eta jartzea beharrezkoa delako, hori instalatzen duten amen portzentajea, kasu horietan, nabarmen handitzen da. Horrela, adieraz dezakegu kasuen %46,6etan gailua aitak edo amak kokatzen duela (Ikus 7. taula).

7. Taula. HLS instalatzen duen pertsona etengabe kendu eta jarri behar denean (%)

	MAIZTASUNA	PORTZENTAJEAK
Aita edo ama	227	46,6
Beti aita	187	38,4
Beti ama	58	11,9
Beterik	15	3,1
<b>Guztira</b>	<b>487</b>	<b>100</b>



Era berean, nabarmendu behar da kontsultatutako 602 pertsonetatik, %19k (115 pertsonak) ez duela lekuz aldatu HLS hasieran kokatu zuenetik, horregatik n=487 lagina aipatzen dugu aurreko taulan eskainitako datuetan.

### 3.2. Erabiltzaileek HLS-k instalatzean dituzten zailtasunei buruz egindako balorazioa

Hasieran guraso askorentzat eragozpen handia izan arren HLS instalatzea, egia esan, erdiak baino gehiagok, hau da, bi gurasotatik batek baino gehiagok, uste du HLS instalatzea erraza edo oso erraza dela.



Dena dela, 8. taulako emaitzak ikusten baditugu, antzeman dezakegu erraza edo oso erraza dela pentsatzen duten gizonak emakumeak baino gehiago direla (%60,6 eta %48,8), eta emakume gehiago daudela zaila edo oso zaila dela pentsatzen dutenak (%17,7 eta %10,8).



B. Taula. HLSren instalazioaren balorazioa sexuaren arabera. (%)

	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
Oso zaila	2,2	2,0	2,3
Zaila	12,1	8,8	15,4
Hala moduzkoa	29,6	26,9	32,1
Erraza	40,7	44,8	36,7
Oso erraza	14,0	15,8	12,1
Ez daki	1,5	1,7	1,3
Batezbesteko puntuak **	3,53	3,65	3,42
<b>Guztira</b>	<b>602</b>	<b>297</b>	<b>305</b>

\*\*1etik (oso zaila) 5erako (oso erraza) eskala.

Ondoko grafikoan antzematen da era nabarmenagoan HLSren instalazio baloratzerakoan gizonetako eta emakumeetako arteko ezberdintasuna.



\*\*1etik (oso zaila) 5erako (oso erraza) eskala.



9. Taula. HLSren instalazioaren balorazioa adingabearen adinaren arabera (%)

	GUZTIRA	0 urtetik 3ra	4 urtetik 6ra	7 urtetik 12ra
Oso zaila	2,2	3,0	1,7	0,9
Zaila	12,3	14,4	11,7	7,4
Hala moduzkoa	30,0	33,8	27,2	24,1
Erraza	41,3	38,0	43,3	47,2
Oso erraza	14,2	10,8	16,1	20,4
<b>Guztira</b>	<b>602</b>	<b>310</b>	<b>181</b>	<b>111</b>

Ikus daitekeen bezala, gizonentzat emakumezkoentzat baino pixka bat errazagoa da HLS era zuzenean instalatzea. Instalazioa oso zailtzat jotzen da haurrak gazteagoak direnean; hau da, adin txikiagoko taldeetan.

### 3.3. HLS-k aztertzea bidaia bat hasi aurretik

Bestalde, badirudi haurren segurtasun-gailua aztertzeko ohitura, behin instalatuta dagoenean eta edozein bidaia mota hasi aurretik (ibilbide motzekoa nahiz luzekoa izan), ez dagoela oraindik oso errotua gurasoen artean.

Zentzu horretan, hamar erabiltzailetatik zazpi inguruk (%68) beti HLS aztertzen dutela ziurtatu arren, %10ak baieztatzen du ez duela inoiz edo ia inoiz gailua aztertzen; %11k adierazten du soilik noizean behin aztertzen duela eta %12k bakarrik ibilbide luzeko bidaia bat egiten duenean.



10. Taula. Bidala bat hasi aurretik HLS aztertzen den maiztasuna (%)

	MAIZTASUNA	PORTZENTAJEAK
Beti	409	67,9
Ibilbide luzeetan bakarrik	70	11,6
Noizean behin bakarrik	65	10,8
Inoiz edo ia inoiz	58	9,6
<b>Guztira</b>	<b>602</b>	<b>100</b>

Beraz, badirudi guraso askok ez dutela HLS aztertzeko ardura hartzen, baizik eta behin instalatuta, dagoen bezala uzten dutela. Egitez, ikerketaren lehendabiziko zatian antzematen zen behatutako gailuen %27 ez zegoela behar bezala kokatuta.



### 3.4. Haurra autoko HLS-n kokatzeaz arduratzen den pertsona

HLS lehendabizikoz instalatzeaz arduratzen zena aita zela ikusi dugun bezala, haurrak kokatzerakoan eginkizun hori amekin partekatzen dute. Burututako kontsulten %63aren arabera, bai aitek bai amek segurtatzen dituzte adingabeak.



11. Taula. Autoan haurra lotzeaz/kokatzeaz arduratzen den pertsona (%)

	MAIZTASUNA	PORTZENTAJEAK
Aita edo ama	381	63,3
Beti ama	94	15,6
Beti aita	86	14,3
Besterik	41	6,8
<b>Guztira</b>	<b>602</b>	<b>100</b>

Kasuen %16an, beti ama da adingabea kokatzen duena, %14an, beti aita, eta %7an, beste pertsona batzuk.

Beharrezko da nabarmentzea, haurrak HLSn kokatzen dituzten beste pertsonen artean, beren burua segurtatzen duten haurren portzentaje garrantzitsua dagoela. Hori, batez ere, 4 urtetik gorako adina duten haurren artean gertatzen da.

12. Taula. Haurra lotzeaz arduratzen diren beste pertsona batzuk, adin-taldearen arabera (%)

	GUZTIRA	0 urtetik 3 arte	4 urtetik 6 arte	7 urtetik 12 arte
Haurra bera	63,4	8,3	75,0	94,1
Familako bat	31,7	75,0	25,0	5,9
Zaintzailea	4,9	16,7	-	-
<b>Guztira*</b>	<b>41</b>	<b>12</b>	<b>12</b>	<b>17</b>

\* Kontuan hartu behar da adin-taldekako laginak (n) txikiak direla. Hala ere, euren burua segurtatzen duten 7 eta 12 urte bitarteko adingabeak erreferentzia-talde horren %15 dira.





#### 4. HLS-en ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK HORIEN ERABILTZAILIEN USTEZ

Kontsultatutako erabiltzaileen iritzi orokorraren arabera, HLSek eragin ditzake- ten eragozpenak alde batera utzita, merezi du horiek autoan eramatea.

Zentzu horretan, HLSetan gurasoek topatzen dituzten abantaila nagusiak hiru dira:


1. Segurtasuna batez ere, inkestatutako biztanleen %93ak adierazitakoa.
2. Haurra lotuago egotea eta, beraz, heldua lasaiago egotea ez baita etengabe adingabeari begira egon behar (%9,2).
3. Dauden abantaila posible guztiak, inkestatutakoen %9ak adierazita- koa.



\*%100 baino gehiagoko portzentajea guztira, erantzun askoko galdera delako.

Adierazitako desabantailen artean, aldiz, ondokoak adierazten dira (11. Grafikoan jasotzen den bezala):





\*%100 baino gehiagoko portzentajea guztira, erantzun askoko galdera delako

1. Inkestatuko en laurik batek baino gehiagok (%46,4) adierazten du neketsua dela (zaila, korapilatsua, deserosoa) gurasoentzat gailua kentzen eta jartzen ibiltzea eta haurrak bertan kokatzea, izan ere, askotan ez baitute nahi izaten.
2. Bestalde, %22k uste du HLS deserosoa dela haurrentzat, besteak beste, nekatu egiten direlako ibilbide luzeetan, ezin dutelako burua ondo eutsi lo egiteko, beroa ematen dielako.... etab.
3. Inkestatutako en hamarretik bi inguruk ziurtatzen du HLSk leku handia hartzen dutela, autoan tokia kenduz eta, are gehiago, eskuratu beharreko auto mota baldintzatuz.
4. %16k baino zerbait gehiagok uste du gailu horiek garestiak direla (prezio altua), are gehiago seme/alaba bat baino gehiago edukiz gero.
5. %10ak baino gutxiagok uste du HLSk ez direla oso seguruak. Inkestatutako portzentaje horrek adierazten duen arrazoia da, badirela haur batzuk euskarriak erraz askatzen ikasten dutenak.



6. Inkestatutakoen %7k beste desabantaila batzuk adierazten ditu, esaterako, eserleku unibertsal bat ez egotea; taxian bidaiatzeak dakartzan arazoan; beste haur, lagun batzuk eramatearen zailtasuna, gailua garbitzearen deserosotasuna, etab.
7. Azkenik, kontsultatutakoen %17k uste du HLSk ez diola inolako desabantailarik sortzen.

Dena den, adierazitako desabantailak gorabehera, orokorrean, gurasoen arabera, HLSk eskaintzen duen segurtasunak du lehentasuna.



# Ondorioak





Jarraian ikerketa honetatik lortutako ondorio nagusiak aurkezten dira:

- Ia 0 eta 12 urte bitarteko haurren %95ek haurrak lotzeko sistema darama autoan bidaiatzerakoan eta distantzia handiko ibilbide luze bat (25 km baino gehiago) burutzerakoan. Erabilpen-portzentaje hori %80ra jaisten da distantzia ertaineko izaera duten ibilbide luzeetan (5 km baino gehiago) eta %75era ibilbide motzetan.

Hala eta guztiz ere, hiru kasuetan erabilpen-portzentajeak %90 gainditzen du 0 eta 3 urte bitarteko haurren kasuan.

- Zentzu honetan, ondokoa adieraz daiteke: are eta zaharragoak haurrak, orduan eta gutxiago kezkatzen dira gurasoak autoan dagokien segurtasun-gailuarekin eramateaz.
- Bestalde, distantzia handiko ibilbideetan bidaiatzen duten haurren ia %98k bere pisu eta tamainara egokitutako HLS darama eta, gutxi gorabehera, gailu horien %95ak indarrean dagoen homologazio-legeria betetzen du.
- Hala ere, egiaztatu da, distantzia handiko ibilbide luzeetan aztertutako HLSetatik ia %24 ez zegoela behar bezala kokatuta, eta horrek esan nahi du instalazioa ez dela egokia izan.

Gainera, 0 eta 3 urte bitartekoen taldeko umeek erabiltzen dituzten gailuak dira okerren instalatuta daudenak.

Horrela, ondoriozta dezakegu adin-taldeak gora egin ahala, instalazioa hobea dela, eta alderantziz.



- Era berean, euren gailuetan gaizki kokatuta bidaiatzen duten haurrak %12 dira “distantzia handiko” ibilbide luzeko bidaien kasuan, eta sei urtetik beherakoak dira okerren kokatuta bidaiatzen dutenak.
- Kontsultatutako helduen iritziari dagokionez, horien %97k uste du nahiko edo oso kontzientziatuta dagoela HLSen problematikari buruz. Hala ere, portzentaje hori nabarmen murrizten da (25 puntu) orokorrean euskal biztanleen kontzientziaziolari buruz irizterakoan. Horrek esan nahi du, beste problematika askorekin gertatzen den bezala, gure buruari buruz dugun pertzepzioa, orokorrean, biztanleen gainerakoari buruz duguna baino askoz hobea da.
- Gurasoen aldetik bada nolabaiteko ezjakintasun bat haurrek gailuarekin bidaiatu behar duten adin eta pisuari buruz. Gainera, askoz gehiago dira adina dakitenak ezarritako pisua dakitenak baino.
- HLSen hasierako instalazioa dirudienez “gizonen gauza” da; hau da, gizonezkoen rolari lotzen zaio, agian gailua finko eta zuzen kokatzeak indar eta trebetasun handiagoa eskatzen duelako.
- Paraleloki, gizon gehiago daude emakumeak baino gailua instalatzea erraza edo oso erraza dela uste dutenak (%60,6 eta %48,8 hurrenez hurren); eta emakume gehiago daude gizonak baino, zaila edo oso zaila dela uste dutenak.
- Bestalde, badirudi haurren segurtasun-gailua aztertzeko ohitura, behin instalatuta dagoenean eta edozein bidaiata mota hasi aurretik (ibilbide motzekoa nahiz luzekoa izan), ez dagoela oraindik oso errotua gurasoen artean, izan ere, kontsultatutakoen %30ak ez du maiz egiten.



- Nahiz eta ia kasu gehienetan gurasoak izan adingabea segurtatzen dutenak, nabarmendu behar da portzentaje garrantzitsu bat dagoe-la (%10 inguru) 4 eta 12 urte bitarteko haurren artean, beren burua segurtatzen dutenak.
- HLSetan gurasoek topatzen dituzten hiru abantaila nagusiak ondokoak dira: haurra lotuago egotea eta, beraz, heldua lasaiago egotea, ez baita etengabe adingabeari begira egon behar.
- Adierazten diren lau desabantaila nagusiak ondokoak dira: deserosotasuna haurrentzat, prezio altua, behin HLS instalatuta autoan gertzen den tarte txikia eta neketsua dela.

Laburbilduz, burututako ibilbide motaz gain (are eta motzagoa, orduan eta gutxiago erabiltzen da HLS), haurren segurtasuna zehazterakoan eragin gehien duen aldagaia ADINA da. Zentzu horretan, HLSren erabilpena handiagoa da 0 eta 6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoen artean eta txikiagoa da autoan 7 eta 12 urte bitarteko haurrak daramatzatzenen artean. Hala ere, gailua eta haurra bera kokatzea askoz okerragoa da 6 urtetik beherakoan artean (nabarmenezkoa 0 eta 3 urte bitartekoan taldean HLSren kokapen okerra) adin hori gainditzen dutenen artean baino.



# I. Eranskina: Herriaren eta adinaren arabera ibilbide motzetan HLSren erabilera jasotzen duten taulak





## ERANSKINA

1. Taula. Ibilbide motzetan HLSren erabilera ibilgailuetan herriaren arabera (%)

	GUZTIRA	Basauri	Beasain	Donostia-San Sebastián	Durango	Getxo	Oiartzun	Vitoria-Gasteiz	Zarautz
Daramate	75,4	42,9	71,7	71,8	88,5	71,4	80	79,1	55,3
Ez daramate	24,6	57,1	28,3	28,2	11,5	28,6	20	20,9	44,7
<b>Guztira</b>	<b>397</b>	<b>35</b>	<b>60</b>	<b>195</b>	<b>157</b>	<b>28</b>	<b>40</b>	<b>182</b>	<b>38</b>

2. Taula. Herriaren eta adinaren arabera ibilbide motzetan HLSren erabilera (%)

	Daramate ala ez	GUZTIRA	0 urtetik 3ra	4 urtetik 12ra
Basauri	Bai	42,9	100,0	16,7
	Ez	57,1	0	83,3
Beasain	Bai	71,7	100,0	56,4
	Ez	28,3	0	43,6
Donostia-San Sebastián	Bai	71,8	84,9	61,5
	Ez	28,2	15,1	38,5
Durango	Bai	88,5	91,0	80,0
	Ez	11,5	9,0	20,0
Getxo	Bai	71,4	93,8	41,7
	Ez	28,6	6,3	58,3
Oiartzun	Bai	80	100,0	70,4
	Ez	20	0	29,6
Vitoria-Gasteiz	Bai	79,1	98,6	65,7
	Ez	20,9	1,4	34,3
Zarautz	Bai	55,3	94,7	15,8
	Ez	44,7	5,3	84,2

